



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

Fanzineen Gerra 2023

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 34. Asteak, Medialab Tabakalerako autoedizioko txokoarekin eta **FNAC**ekin elkarlanean, berriro antolatu du Fanzineen Gerra, berriro ekin dio euskarri horien bidez generoarekiko grina bizia aditzera eman eta aldarrikatzeko.

Tinta eta paperezko gerra honetan Astea dela eta argitaratutako hainbat fanzine lehiari arituko dira publikoaren babesa lortzeko datozen **urriaren 27a eta azaroaren 3a bitartean**.

Izena emateko epea **urriaren 11a arte** egongo da zabalik, **eguerdiko 12:00ak arte**. Gehienez **6 taldek** parte hartuko dute. Bi hautaketa-irizpidek izango dute lehentasuna: lehena, aurretik inoiz parte hartu ez izana gerran eta, bigarrena, inskripzio-ordena.

Oinarriak: www.sansebastianhorrorfestival.eus

Inskripzioa: guerrafanzines@gmail.com

OINARRIAK

- Gutxienez 2 kidez osatutako taldeek eman ahal izango dute izena Gerran. Inskripzioak egiteko azkeneko eguna urriaren 11a izango da, 12:00ak arte, helbide elektronikoa honetan: guerrafanzines@gmail.com
- Gehienez 6 talde onartuko dira. Talde bakoitzari, gehienez, banakako bi akreditazio doan emango zaizkio Asteko emanaldi guztietan sartzeko. Horren ordainetan, fanzinea egiteko konpromisoa onartzen dute, baita jendaurrean aurkezteko ere.
- Talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du eta fanzinea paperezko 8 orrialdetan (azala eta kontrazala) egin beharko du zuri-beltzean. Orria A-5 neurrikoa izango da.
- Fanzineen edukiak fantasiako eta beldurrezko zinemaren munduarekin, herri kulturarekin, nostalgia frikiarekin... lotuta egon behar du bere osotasunean edo partzialki. 2 orrialdek gutxienez lotura izan behar dute 2021eko Beldurrezko Astearen programazioarekin. Edukiaren zati bat aldeztu aurretik prestatu ahal izango da. Euskaraz edo/eta gaztelaniaz sor daitezke.
- Fanzineak parte-hartzaile bakoitzaren baliabide propioekin (idazketa, maketazioa...) egin beharko dira, baina Medialab Tabakalera autoedizioaren txokoak bakoitzaren esku jarritako baliabideak ere erabili ahal izango dituzte. Publikoaren artean banatuko diren kopien kostua Beldurrezko Asteak ordainduko du.
- Fanzineek Beldurrezko Astearen, Tabakaleraren eta FNAC Donostiaren logotipoak eduki beharko dituzte. Logotipo horiek antolakuntzak emango ditu.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

- Fanzine bakoitza antolakuntzari entregatu behar zaio, parte hartuko duen talde bakoitzari emandako egunaren eta orduaren aurretik, pdf-ko artxibo digitalean eta erreproduzitzeko beharrezkoa den gutxieneko kalitatearekin.
- Asteko publikoak baloratu ahal izateko, antolakuntzak fanzine bakoitzetik behar diren kopia guztiak egingo ditu.
- Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu gehienez kanpaina egiteko, publikoaren aurrean bere fanzinea aurkeztu eta bere aldeko botoa eskatzeko, antolatzaileek emango dioten egunean, urriaren 27a eta azaroaren 2a bitartean.
- SARIAK. Talde irabazleak FNACen erosteko hiru txartel lortuko ditu. Txartel bakoitzak 50 euroko balioa izango du. Eraitza azaroaren 4ko amaiera-ekitaldian emango da ezagutzera.

Parte hartuko duten fanzineak zinemaldiaren webgunean jarriko dira:

www.sansebastianhorrorfestival.eus

Prestakuntza lantegia Jone Taberna-rekin
SORGINEN BILKURA. KUTTUNA, ERRITUALA ETA FANZINEA
Urriak 21 / 10:30-17:30
+16 urte. € 4
Medialab Tabakalera

Sorgina euskal mitologian zein ilustrazio, zinema eta sorkuntzaren munduan etengabe irudikatu den figura da.

Sorgin bilkura hau gidatzeko, bidelagun paregabea aurkitu dugu: Jone Taberna artista eta bitxigilea. Gizakiak naturarekin duen erlazio kementsuak bere lanean eragin sakona du. Haren praktika artistikoan, marrazki, bitxigintza zein beste espresiotan, hauek azpitik dakarten esanahi izkutua biluztea du Jonek gogoko, barne begirada sustatzeko. Sorginkeria, landareak zein mistizismoa bere iruditeria parte garratzitsu dira, eta halaxe izango dira lantegian ere; risografia eta beste teknika grafikoak erabiliz, liburuxka kolektibo batean bilduko ditugu belarrak, errezetak, konjuruak, erritualak eta sorginkeriak.

Zatoz bidelagun, orakulo eta kuttun bilakatuko den liburuxka hau sortzera.

Izen-ematea Tabakalerako webgunean.